



Prensa oharra

BALEARRETAKO, BARTZELONAKO, BIZKAIKO, GIPUZKOAKO ETA PONTEVEDRAKO IKASLEEK IRABAZI DUTE EROSKI FUNDAZIOAREN 3. *IMAGINE FOOD* LEHIAKETA

- **237 ikastetxetako eta 91 familiatako 2.800 marrazki baino gehiago aritu dira sei sarien lehian**
- **Berritasun gisa, aurten Imagine Foodek bi kategoria izan ditu: ikastetxeak eta familiak, eta Danoneren Alimentando el Cambioren lankidetzak izan du**
- **Peio Gartzia sukaldariak errezeta goxo eta osasungarri bihurtuko ditu marrazkiak**

Elorrio, 2019ko abenduaren 26a.- [EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak](#) hirugarrenez antolatu du *Imagine Food* sariketa, DANONEren Alimentando el Cambioren lankidetzarekin, eta dagoeneko erabakita daude irabazleak. Lehen Hezkuntzako 6-12 urteko ikasleentzat antolatzen dute, eta helburua da haurrak, irakasleak eta gurasoak kontzientziatzea dieta orekatu eta osasungarri bat eramatearen garrantziaz. Horretarako, aurten *Imagine Foodek* haurrei proposatu die beren irudimena eta ezagutzak erabiltzea gosari, askari edo plater osasungarri bat marrazteko, baldintza honekin: esneki bat eta haurrei osasunez hazteko modua emango dioten elikagai sanoak edukitzea.

2.810 marrazki baino gehiago egin dituzte, eta *Imagine Fooden* epaimahaikoak Bartzelonako, Bizkaiko eta Pontevedrako hiru ikasleren proposamenak hautatu ditu ikastetxeen kategorian, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Balearretako hiru adingaberenak, familien kategorian.

Ikastetxeen kategoriako irabazleak

Ikastetxeen kategorian, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleetatik (1. eta 2. mailak), Elena Lozanok irabazi du, Bartzelonako Pineda ikastetxekoa bera, eta haren lana *Desayuno con energía, 4 raciones H-C* izan da; Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoa (3. eta 4. mailak), berriz, Pontevedrako David Rodriguez Gregoresek irabazi du (CEIP Marquesa da Merce ikastetxekoa), eta haren lana *Palmeras de fruta y yogurt* izan da (5. eta 6. mailak); eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, *Hamster comilón* lanak irabazi du, Bizkaiko Nuestra Señora de la Merced ikastetxeko Sara Perezena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



237 ikastetxetako ikasleek parte hartu dute aurtengo *Imagine Food*en. Irabazleek 2.000 euroko saria jasoko dute ikastetxerako, eta bizikleta bat eurentzat.

Irabazleak familien kategorian

Familien kategorian, EROSKI Clubeko 91 familia parte-hartzaileetatik, epaimahaikoak Marc Ramosi eman dio saria 6-8 urtekoen artean; Balear Uharteetako da, eta *Girasol para dippear* lana aurkeztu du. Gipuzkoako Mikel Lasa Fernandezek irabazi du 8-10 urteko parte hartzaileen kategorian, *Fruto helado* lanarekin; eta Ane Calleja Albandozen *Kolore Mundua* lanak irabazi du 10-12 urtekoetan.

Kategoria honetako irabazleen familiek EROSKIren opari txartel bat jasoko dute 500 eurokoa eta haurrentzat bizikleta bat.

3. *Imagine Food* honetako epaimahaikoan, honako hauek egon dira: Eduardo Cifrian EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolako arduraduna, Raquel Garcia [Danoneren External Scientific Affairs](#) managerra, Mikel Oñatibia [BCC Culinary Club](#)eko Zaleen arloko koordinatzailea eta [Peio Gartzia](#) sukaldari profesionala. Marrazki onenak aukeratzeko orduan, menu orekatu baterako errezeta originala, estetikoa eta egokia izateari erreparatu diote.

Partaideen marrazkietan inspiraturiko errezeta osasungarrien liburua

Otsailean, Agustin Markaide EROSKIko presidenteak sariak banatuko ditu. Horrez gain, Peio Gartzia sukaldariak, aurreko urteetan bezala, plater goxo eta osasungarri bihurtuko ditu marrazkiak; hala, plater horiekin eta 30 finalistekin liburu bat aterako dute 2020ko lehen hiruhilekoan.

Haur gizentasunari aurea hartzeko konpromisoa harturik

EROSKIren Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 3. konpromisoan sartzen da *Imagine Food* ekimena: *haur gizentasunari aurea hartzeko konpromisoa*. EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolaren ekimenetako bat da elikadura sana eta ohitura osasungarriak sustatzea gazteen artean. Lehiaketaren helburua da haurrak, irakasleak eta familiak konturatzea zeinen garrantzitsua den dieta orekatu bat eta ohitura osasungarriak izatea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)